

0.- SARRERA - BIDANKOZE ETA USKARA

Agindua zor. Aurreko zenbakian hiru hilean behin argitaratzeko asmoa bete ez genuenez, hori konpentsatze aldera Bidankozarte aldizkariaren zenbaki berria aurreratu dugu.

Negua joan zaigu, antza. Aurtengoa ohi baino samurragoa izan da, eta orain udaberri giro paregabea dugu, uda garaian ohikoagoak diren egun bero batzuk ere tartean. Baratzak eta baratzezainak lan betean ari dira eta mendiak tonu berdez jantzi. Apirila euritsua izan denez, erreka *mayenco* doa, Almadiaren egunean *mayenco*egi joan omen zen.

Aurten Uskararen Eguna Bidankozen ospatuko da, hori dela eta herrian bizitasun handiagoa dago. Urteroko jardueraz gain, oraingoan lip-dub bat grabatuko da, hau da, bideoklip moduko bat, non, euskararen erabilera aldarrikatzen duen abesti bat lagun, herrian barrena ibilbide bat egingo da eta bidean ibarreko elkarteak eta biztanleak agertuko dira.

Batzuek -politikaren ondorioz, nonbait-, uskara antzinako kontu arrotzat jo arren, egia esan, duela gutxi desagertu zen. Gainera, gure uskara bizirik dago bertako hizkeran, deituetan, mendien zein etxeen izenetan....

XIX. mendearen bukaeran biztanleen %80 euskalduna zen, 437 biztanletik 350.

Orduz geroztik, hainbat arrazoi tarteko, Uskararen erabilera gainbehera bizian jaitsi zen, hasiera batean familia-eremura mugatuz, eta ondoren erabat galduz. 1925ean "Navarra" aldizkariak Bidankoze oraindik herri euskalduntzat jotzen zuen, euskaraz mintzatzen zen herrien hegoaldeko mugan kokatuta. Ordurako Burgin, Garden, Erronkarin eta Urzainkin galdua zen.

Garai horretan, aldiz, uskara jada ez zen aditzen herriko kaletan. Mariano Mendigatxak (*Mendigatxa*) hala adierazten zion Azkueri mende hasieran idatzitako gutunetan, bilobei uskara ezin irakatsi izateagatik arranguratu. Hala ere, adinekoen artean bazen txikitari ikasitako uskara nola edo hala zekiena; esaterako, Juliana Arriola (*Arriola*), Eusebio Etxalarakoak *Erizkizundi Irukoitza* egiteko 1924an elkarrizketatu zuena.

Zenbait urte geroago, Igari-Bidankoze-Erronkari errepidea egin zuten presoak etorri zirenean - horietako batzuk bizkaitarrak eta, berez, euskaldunak ziren -, horiekin euskaraz aritu eta elkar ulertu ahal zuenik bazen.

Geroztik, gure amonen eta birramonen ahotan oraindik ere bertako mintzairaren apur batzuk entzun ahal izan ditugu.

Orain arte aurkitu ahal izan ditudan herriko historiaren hainbat ataletan (aurkitzeko asko egongo dira!) uskara

aipatzen da; esaterako, 1560an Graziana Belza ustezko sorginari bere zigorraren berri eman zitzaionean "*dándole a entender en bascuenç*" agertzen da, beste hizkuntzarik ez zekielako; mende eta erdi geroago, eliza-prozesu batean -aurrerago, "historia apurak" atalean aztertuko dena-, bi bidankoztar herriko bikarioa izateko lehian; eta beste mende eta erdi geroago, Louis Loucien Bonaparte hizkuntzalariak bertako uskara dokumentatzeko -orduan sendo eta bizirik zena-, Mariano Mendigatxa eta Prudencio Hualderekin izandako harremanetan.

Ondorengo mende erdian, Mariano Mendigatxak bere gutunetan argi esaten duenez, uskara aitaren batean desagertu zen, elurra udaberria etortzearekin batera gesaldu ohi duen antzera.

Alabaina, iraganean zaharren ahotan uskara itzali bezala, orain heldu, gazte eta batez ere haurren ahotan pizten ari da, eta gaur egun ez da hain arraroa herriko kaletan euskara entzutea. Marianok eta Prudencio burua altxatuko balute, irribarre egingo lukete hori ikusita.

Hori guztia dela eta, *2012ko Uskararen Eguna* goza dezagun, uskara gurea baita. Eta hori esanda, ekin diezaiogun bada Bidankozarte aldizkariaren 3. zenbakiari.

1.- HISTORIA APURRAK - BIDANKOZEKO BIKARIOTZA ESKURATZEKO LEHIA (1723)

1722 urtea zen Gregorio Uztarroz bikarioa hil zenean eta Bidankozeko Endone Petriren parrokia-elizako bikariotza hutsik gelditu zen eta bikario berria izendatu behar zen. Garai haietan, bikarioaren hautaketa Orreagako Kolegiata eta Bidankozeko herritarrei zegokien. 1722an Bidankozeko herritarren txanda zen eta bi hautagai zeuden: Miguel de Hualde (bi urte beranduago gaur egungo *Diego* Etxea eraiki zuena, lehen *On Mikelna* deiturikoa, hau da, On Miguelen etxea) eta Pedro Esparz, ziurrenik gaur egungo *Gaiarre* etxekoa (garai bateko *Espazena* etxea, hau da, Esparzen etxea). Bizilagunek bozka egin zuten eta Miguel de Hualdek irabazi zuen.

Baina Pedro Esparzek, galtzen ez omen zekienak, bere aurkariak uskara ongi menperatzen ez zuela argudiatu zuen hainbat urte kanpoan egona baitzen. Eta bikarioaren lanposturako uskara beharrezkoa zela, batez ere emakume eta umeak konfesatzeko orduan.

Miguel de Hualde, suminduta, defendatu egin zen, hiriko semea izaki, nola ez zuen ba berak uskara jakinen? Hori dela eta, bere uskararen ezagutza ebaluatzea eskatzen du baina artzapezpikutzari jakinarazten dio (eliza-eskumeneko gaia baitzen) Bidankozen hitz



egiten den uskara Iruñea eta Iruñerrian hitz egiten denaren nahiko ezberdina dela.

Azkenik, Miguel de Hualdek uskararen ezagutzaren proba gairatu zuen (ez dakigu bere "aitabitxiaren" laguntzarekin izan ote zen, beste batean azalduko dudana gaia izango da). Eta bistan denez, ospatzeko, egungo *Diego* Etxea eraiki zuen, eta etxaurreak adierazten duen moduan, 1724 urtean eraikitzen amaitu zuen, prozesua amaitu eta hurrengo urtean.

2.- HEMEROTEKA - BIDANKOZEKO LEHENENGO "USKARAREN EGUNA" (1975)

1975eko ekainaren 8an Bidankozen Mariano Mendigatxari (*Mendigatxa*) eta Prudencio Hualderi (*Rakax*) omenaldia ospatu zen, biak uskaldunak eta herriko semeak baitziren. Diario de Navarra jasotako albistean Nicolas Iribarren apezak antolatutako jai eguna nola igaro zen kontatzen da.

En Vidángoz la jornada ha sido el 8 de junio, en memoria de dos escritores bidangotarras, promotores adelantados de la cultura vasca: Don Prudencio Hualde Mayo, nacido el 26 de abril de 1823 y fallecido en Vidángoz el 9 de diciembre de 1879, después de haber sido párroco en el mismo pueblo durante 26 años, y don Mariano Mendigacha, labrador y ganadero, nacido en Vidángoz el 12 de febrero de 1832, y fallecido el 31 de julio de 1918.

Ospakizunaren zati nagusia, non herriak parte hartu baitzuen, mezarekin, nola ez, hasi zen eta bertan Enrique Hualde (*Txestas/Juanko*), Evaristo Urzainki (*Lengorna*) eta Tomas Arbizu (*Arbizu*) zinegotziak, On Miguel Salvoch (Urzainkiarra) idazkaria eta Doroteo De Miguel Bernat (Uztarroztarra), azken uskaldumetako bat, orduan 82 urte zituen. Mezako irakurgaiak Koldo Artolak erronkarierara itzuli zituen eta horrez gain, akordeoilari bat eta bost txistulari izan ziren.

Meza eta gero, Ambrosio Mainz (*Aristu / Arriola*) eta Daciano Ezker (*Landarna*) bikario-etxeke baratzean gonbidatuentzako ogi mamiak eta axuri saiheskiak prestatu zituzten.

Hain justu lau urte igaro ondoren, eta Prudencio Hualderen heriotzaren mendeurenarekin bat eginez, On Nicolas Iribarren erretoreak oroitzapenezko xaflla bat ipintzea iradoki zuen. Iradokizun hura baitaratu eta bi hilabete beranduago gauzatu egin zen, hain zuzen 1979ko

abuztuan Bidankozen ospatu zen *Erronkariko Ibaxa Egunean*, non bi uskalzale bidankoztarrak omenduak izan ziren eta egun *Rakax* etxeurrean ikus daiteken xaflla ipini zuten.

Todo el pueblo —Vidángoz tiene ahora 200 habitantes— se sumó al acto que se ofrecía en honor de sus dos hijos ilustres. Lo había preparado muy bien el activo párroco don Nicolás Iribarren, hijo de Güessa, y que concelebró en la Misa mayor. Allí se hallaban el alcalde don Enrique Hualde, los concejales don Evaristo Urzainqui y don Tomás Arbizu, el secretario don Miguel Salvoch, y también los hermanos del alcalde don José y doña Purificación Varias

3.- TOPONIMIA (TOKIEN IZENAK) - ELIZARENA

Gaur azalduko dudana toponimioa *Elizarena* izango da edo egungo herri hizkeraren arabera *Lizarena*. Izatez mendi bat baino, *Elizarena* sakaneko bi alboetako mendi-mazelen ingurua da. Horieta alde bat herriko hirigunearen zati baten oinarria da.

Izenaren etimologia oso argia da: "Eliza"+ "rena" (atzizki erlatiboa), itzuliz gero "elizarena" edota "elizakoa" izango zen.

Badira mapa batzuk non inguru honi *Lezerena* deitzen zaion, hau da, "leizearena" eta ziur aski hori izango da inguru hau kartografiatu zuenak imaginatu zuen izenaren jatorria. Herritarrei izena galdetu eta *Lizarena* entzuterakoan izena *Pitxorrongoaren* parean dagoen

"leze"tik etorriko zela ondorioztatu zuen.

Azalpen hau lurreko errealitatearekin bat etor liteke, baina aitzinako dokumentuen arabera, izenaren jatorriaren inguruko zalantzarik ez dago. Eta lehen azaldu dudana bezala, San Pedro elizaren

kokapenari erreferentzia egiten dio.

Bere mendi-mazeletako baten gainean, non herrigunearen zati bat dagoen (eta non, gaur egun etxe batek izen bera daraman, hau da, Elizarena), antzina makina bat larrain eta baratze zeuden.

Elizarena sakaneko beste aldean dagoen mendi-mazela harkaitz xaflla erraldoi bat da, mende batzuk azerago *Pitxorronga* eta *Igariarenarekin* bat egingo zena, baina ura eta denbora igarotzearen ondorioz banandu egin ziren.

Elizarenako mendi-mazelek hitz egingo balute, Bidankozeko istorio ugari kontatuko lizkigukete, batzuk isilpekoak eta beste batzuk ez hainbeste, esate baterako, Manuel Mendigatxa, Mariano Mendigatxaren aita, Lehen Karlistadan hil zutenekoa.



4.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - XERENO

Xereno etxearekin hasi baino lehen, aurreko zenbakian ikusitako *La Santa* etxearekiko argitze bat. Etxea baino lehen aroztegi bat zegoela nioen, baina, egia esan, elizako matrikula-liburuetan (herrian zeuden “arimen” errolda) 1861-1862an agertzen den bezala, bertan etxe bat zegoen, non Vicenta Larequi Urzainqui (Fermín Vidart-en alarguna) eta bere semea Severo Vidart Larequi bizi ziren. 1875a arte bizi izan zen hor Vicenta. Arrazoi batengatik urte horretan utzi zuen etxea eta antzinako *La Santa* etxera (oraingo *Elizalde* etxera) joan zen, bere jabea, Manuel Larequi Elizalde, aipatutako Vicentaren anaia izana baitzen. Datuen aditzera, pentsa dezakegu etxea edo gelditzen zena M^a Santos Larequik edo bere alabak Severina Fuertes Larequik oinordetu zuela eta zaharberritu zutela, gaur egun ezagutzen dugun etxea sortuz.

Goazen orain Bidankozarteko hirugarren zenbaki honetan hitz egin behar dugun etxera, hau da, *Xereno* etxera, tradizionalki eta Bidankozeri zegozkion zerrendak osatzen ziren zentzuan, *Iribarnea* auzoan igarotzen zen lehenengo etxea zelarik.

Iribarnea auzoa (aurreko zenbakian aipatu bezala “*herriko behekoa*” edo “*herriko beheko aldea*” esan nahi du) 20 etxek baino batzuk gehiagok osatzen zuten, haien artean Gazteluko etxeak barne.


Auzo honetan *ferrategia* (zaldiak ferratzeko), gorpila (zorrozteko), *Idazkariaren etxea* eta *Endone Mikleren baseliza* zeudela aipa dezakegu. Gainera, denbora luzez estanko eta ostatu izan zen *Santxena* etxea.

Dagokigun etxeari jarraikita, jatorrizko biztanleen oinordekorik garai hauetara iritsi ez izanak zailtzen digu etxearen historia jakitea. Orain dela gutxi jatorrizko familiako *Xereno* etxean jaiotako azkeneko pertsonetako baten bilobaren mezu bat aurkitu nuen, baina orain arte ez dut lortu kontakturik egiten.

Horrela, etxe honetako jatorrizko azkeneko senitartekoak Argentinara joan omen zirela da dakiguna, etxe honetako norbait zorte bila joan zen XX. mende hasieran, emaitza onekin antza denez.



Jatorrizko familia utzi eta oraingo jabeek (Sanz-Artuch familia) erosi zuten denbora bitartean etxe honetako biztanle izan ziren Arbizu-Salvoch familia, 1948-1951bitartean, *Arotx* etxea (oraingo *Arbizu* etxea) erosi aurretik, eta ondoren, ura herrira ekartzeko lanak egin zirenean, Avilatik etorritako zenbait langile ere egon ziren bertan.



1973ko abenduaren 4ean ondoko *Landa* etxean (oraingo *Martin* etxea) sortutako sute batek etxea suntsitu zuen 2 ordu eskasetan, barruan Salvado Sanzek (*Argedas/Xereno*) eta Paula Artuchek (*Largotena/Xereno*) osaturiko bikotea eta beraien hiru alabak zeudelarik, zeintzuk jabetza apur batzuk ozta-ozta atera zituztelarik.

Ondoren, orain ezagutzen dugun *Xereno* etxea eraiki zen.

Izenari dagokionez, *Xereno* izenaren jatorria ez dakit, ziurrenik etxe bati emandako izengoitia izanen zelarik, eta erreferentzi nori egin ziezaiokeen norbaitek zekien ere ez dut aurkitu. Bidankozeko hainbat etxeetako ahoskeran hain adierazgarria den “X” aipatzerik dago (*Xapatero, Xoko, Paxapan, Pexenena, Mux,...*).

Xereno izenaz gain, elkarrizketatutako adineko batzuek adierazi zuten, epe batez, etxeari *Bertol* etxea eta *Zazu* etxea izenekin egiten zitzaion erreferentzia.

Lehenengoan, *Bertol*, epe labur batez batzuek eman zioten izena zen, eta

Eugenio Glaría Aznaréz jatorrizko etxeari dagokio, Burgiko *Bertol* etxeari, nor 1927an Fermina *Zazu* Fuertesekin (*Xereno*) ezkondu zen. Izen hau 1927tik erabili zen, ezkondu zirenean, 1939-1940a arte, noiz antza denez Glaría *Zazu* familia Bahía Blancara (Argentina) joan zen.

Bigarren izena, aurrekoa denboran, *Zazu* etxea, Francisco Zazuren (*Anxelarna*) abizenari ere egiten dio erreferentzia, 1895ean M^a Josefa Fuertes Urzainquirekin (*Xereno*) ezkondu baitzen. *Anxelarna* etxea, bere garaian azalduko dugun bezala, orain *Calderero* etxea denaren goiko aldean zegoen etxe txiki bat zen.

Hauen aurretik etxearen jabe izan zen Ángel Fuertes Salvoch (*Fuertes*), Francisca Manuela Urzainqui Mendigacharekin (*Xereno*) 1859an ezkondu zirela. Eta aurreko belaunaldian, etxearen jabe Juan Antonio Urzainqui Labianok eta M^a Isidora Mendigacha Martínek (kasu honetan ez dakit asmatzen nor zen etxeak eta nondik zetorren bikotekidea) osaturiko ezteiak izan ziren. “*Xereno*” izengoitia gizon hauetako bati emanen zioten edo, arras zailagoa, beren semei, baina ez dugu nola ziurtatu.

5.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK

Bidankozarte aldizkariaren 1. zenbakian Mariano Mendigatxak bere lehenengo hiru gutumetan Bidankozeko kontuei buruz emandako datuez idatzi nuen. Kontakizun hori 2. zenbakian eten egin nuen, izan ere, Mariano Mendigatxaren bizitzaz aurkitutako datu garrantzitsu batzuk aipatzeko modukoak zirela iruditu baitzitzaidan.

3. zenbaki honetan, berriz ere, Marianok bere gutumetan egiten dituen iruzkinekin jarraituko dugu. 1903ko maiatzeko gutunak ia ez du mamirik. Marianok aipatzen du hamabost egunez beherako larria eta bihotzerrea izan zuela. Dioenez, mundutik bazihola uste zuen baina sendabelar batzuei esker osatu zen. Gutunean ia ez du besterik aipatzen, soilik hori idazten ari zen egunean, maiatzak 31, igandea, jai handia zutela, etxean edo herrian zen zehaztu gabe. Hori herrian izan bazen, ez dakit zein jai izan zitekeen. Santuen izendegian Ama Birjinaren ikustaldiaren eguna da, baina ez dut inoiz ospatu izanaren berririk. Beharbada gure herriko zaharren batek gaur egun ospatzen ez den horrelako jai bat iradoki lezake.... Batek daki.

Hurrengo gutunak, 1903ko ekainekoak, zenbait erreferentzia gramatikalez gain, ezer gutxi du, ez behintzat hona ekartzeko modukoak.

1903ko abuztuko gutunean aipatzen du laborantzan buru-belarri ari zirela eta

denbora gehiena horretan ematen zutela. Bukaeran Marianok elizan izandako gertakizun bitxiaren berri ematen du, aurreko gutuna idatzi zuen garaikoa, ekainaren 22aren inguruan. Kontatzen duenez, bi emakumek liskarra izan zuten elizan lekua hartzerakoan. Bata, 68 urtekoa, "herriko aberatsena", eta bestea, 25 urtekoa, "haurdumaldian oso aurreratua", Marianoren esanetan.



Ondoren, hitzez hitz gertatutakoaren kontakizuna: "*Horrenbestera izan zen liskarra, kalean egongo balira oihukatzen zutela; bata besteari eutsita zeudenean, bakoitza bere harrapakinarekin, zaharrak labana atera zion gazteari. Eskerrak inguruko emakumeei, haiek eskua heldu eta labana kendu zioten. Bestela, ez dakit zer gertatuko zen han. Labana atera zuenak tripetako mina ez zuela jasango esaten zion besteari. Dena den, ez zion tripan sartu, gaztea oso aurreratua zegoen bere haurdumaldian.*"

Marianok bien adina zuzen eman bazuen, bazitekeen gaztea Dionisia Mainz Monzón (*Artutx*, gaur egungo *Pelairca*) izatea, 25 urte zituen erditu zenean (1903ko uztailak 3); eta zaharra, Bidankozen jaioa izanez gero, Juana Teresa Aroza Mendigacha (*Montxonena*) edo Ramona Bibiana Salvoch Regino (*Salbotx etxean jaioa eta Lengorna etxera ezkondua*) izan beharko zen. Hala ere, zahar hori bi etxe horietako batekoa izatea ez dator bat herriko aberatsena izatearen baieztapenarekin, ez behintzat urte batzuk lehenagoko datuak kontuan hartuta. Agian, zitekeena zen emakume hura Bidankozen jaioa ez izatea -alderdi hori da bilatu, ikertu eta ezagutzen dudana-, herriko etxe aberatsenetako batera ezkondua baizik.

Marianok Azkueri "El Eco de Navarra" argitalpenean gaiaren berri eman zezaten ahalegintzeko eskatu zion, gaizki jokatu zuen adineko emakumea lotsarazteko asmoz. Baina, antza denez, ez zen ezer argitaratu.

Beste behin ere, aurreko gutun batean bezala, aipatzen du idazten ari zen eguna jaieguna zela, udako azken jaieguna Ama Birjinaren eguna kenduta. Abuztuaren 7a zen, San Donaziano edo San Sixto, eta maiatzaren 31koan bezala, ez dakit zein jai izan zitekeen. Aurrekoan legez, edozein iradokizun eskertuko nizueke.

6.- BUKAERA

Lerro hauekin bukatzen da Bidankozarteren hirugarren zenbaki hau, aurreikusitako erritmoa berreskuratuz (zenbaki hau Aste Santuan argitaratzekoa zen) eta hurrengo, laugarrena, Endone Petrirako egongo da prest, antzinean Bidankozeko xeiak ospatzen ziren data.

Ale honetan ez zenekiten zerba it irakurri izatea espero dut edo, behintzat, une atsegina pasatu izatea, nik idazten pasatu ditudan bezain entretenigarriak

Ikusten duzuen (eta etorriko dena) Bidankozeko hainbat bitxikeri agertzen dira (egia esan, edozein herriari buruz aurki ditzake) hainbat tokitan, artxiboetan batzuetan, aldizkari edo liburutan besteetan. Eta bestetan, ez horren erraz, interneten.

Dena den, aurkitzen ditudan artikulatu batzuk kasualitate hutsez iristen zaizkit, beraz, erraz da ondorioztatzea hortik dagoen eta inoiz aurkituko ez dudana informazioa. Ziur aski zuetako askoren

etxetan izango dituzue nik irakurri ez ditudan Bidankozeri buruzko liburu edo artikulua, informazio benetan interesgarria izango dutena. Beraz, horrelako zerba it baduzue eta jakinarazten banauzue, eskertuko nizueke.

Momentuz, hori da dena. Hurrengo zenbakian, gehiago (eta hobeki, espero dezagun. Endone Petrirarte, beraz, berehala iritsiko zaigu eta. Bitartean, Uskararen Egunaz gozatzera.

Agur bero bat.